



## **Meaulnes Handia** **Alain-Fournier**

Egia esateko, nobela honek ez nau konbentzitu. Bai, badakit arrakasta handia izan duela, eta argitaratu zenetik 5 milioi ale saltzeko ez-nolanahiko balentria egin duela, baina... ez nau konbentzitu. Pertsonaiak, haiek egiten dutena eta esaten dutena, beraien jokabidea... Den-dena egin zait “gehiegizkoa”, ez dakit ba... Kontatzen zaigun istorioa ez zait sinesgarria egiten, ezta “atsegina” ere.

Ikuspuntu etiko, moral eta gizatiar batetik begiratuta, eleberriko protagonista nagusia (Meaulnes) inozo galanta da, nire ustez, eta horrez gain, higuin garri samarra ere bai (moralki hitz eginez). Gazteentzako abentura-liburua dela...? Bueno, oso irakasgarria ez da... ez baldin bada erakusteko gazteek (eta helduek) nola ez duten inoiz jokatu behar...

Eta gainera, Tom Sayer, Huckleberry fin eta horrelako pertsonaiak mila bider nahiago nik, bi aldiz pentsatu gabe nahiago ere! Horregatik, erdipurdiko nobela hau Peter Panekin edo Altxorraren Uharte-rekin eta horrelako harribitxiekin alderatzea... urrutiegi joatea da, nire ustez, ia-ia iraina eta guzti iruditzen zait.

Gainera, liburuaren egilea buruz eta arimaz gaixoti samarra zelako sentsazioa eman dit eta munduari buruz eta bizitzari buruz zeukan begirada gaixotia proiektatzen zuela liburuko pertsonaia guztietan, dela narrazioaren haria daraman pertsonaia narratzaile grisean dela liburuko pertsonaia nagusian, Meaulnes Handian alegia; eta berariaz, badirudi egileak “Handia” hitza maizegi errepikatzen duela, pixka bat bere burua konbentzitu nahi izango balu bezala, ezen, liburuko pertsonaia benetan “handia”, “sekulakoa” dela –nire begietan aski arrunta, haluzinatua, ulergaitza, irenstezina eta aski sinesgaitza bada ere...

Tira ba, ez zait inporta liburua irakurri izana (euskaraz txukun itzulita baitago), baina ziur nago liburu hobeak badaudela.